# **Tamaina handiko hondakinak**
# jasotzeko zerbitzua

## Zer dira tamaina handiko hondakinak?

Etxean ditugun eta jada baliagarriak ez zaizkigun tamaina handiko materialak.
*Esaterako: mahai bat, sofa bat, koltxoi bat, somierra, garbigailua, armairuaé .*







## Nola kudeatu behar ditut:

Bi aukera daude:

1. ***GARBIGUNERA*** eramatea.
   Kokalekua: Ibarluze Poligonoa (*kokapenaren planoa*)
   Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 09:30-13:00 eta 15:30-18:30
   Larunbatetan 09:30-13:30 eta 15:30-17:50
   Igande eta jai egunetan itxita.

2. ***UDALEKO*** zerbitzua erabiltzea:
   Udalak ostegun goizetan tamaina handiko hondakinen doako bilketa egiten du.
   Zerbitzua erabiltzeko, aurretik izena eman eta zer aterako den adierazi behar da.
   Hondakinak *ASTEAZKEN GAUEAN* atera behar dira, aurretik Udalarekin adostutako lekuan.
   Telefono hauetan eman behar da izena: 900840090 edo 943337000

Bi zerbitzu horiek DOAKOAK dira.

Aukera hauez gain badago material hori ***BIGARREN ESKUKO*** zentruetara eramatea. Modu horretan beste norbaitek aprobetxatu ditzake.

Aurretik Hondakinen Bulegora deitu gabe hondakinak uztea **300 euroko isuna** ekar dezake.

## Zerbitzu honetan jasotzen ez diren hondakinak:

Obra hondakinak, kristala, ispilua, txatarra, komunak, hondakin arriskutsuak (pintura potoak, uralita, fibrozementuaé ), pneumatikoak, jostailuaké





